



Santio bidea egin dute ur gainean

AMASA-VILLABONA ▶ Arraunlari talde batek burutu du Orioko 'Txiki' traineruan; abentura honetan izan da, Ekain Yarza amasarra ▶ 4-5

LEITZA ▶

Kirola eta jaia Plazaolan ▶ 7

CARLOS OLAETXEA ▶ ARKEOLOGOA

«Jesus Elosegik lan handia egin zuen, baina gehiena isilpean»

'Jesus Elosegi 1907-1979' liburuan, tolosarraren biografia idatzi du ▶ 2



I.T.

ELI NOSELLAS ▶ ALURR-EKO LEHENDAKARIA


«Familia handi hori bildu nahi izan dugu 'Alurr' liburuan»

IBARRA ▶ Gaur aurkeztuko dute dantza taldearen historia biltzen duen liburua

DANTZA ▶ Azkunde dantza taldetik izan duen bilakaera azaltzen du ▶ 6



A. IMAZ



NEREA

1962-2007
Lentzeria

Gizonezko eta emakumezkoentzat

LIKIDAZIOA
Azken errematea
%40 %50 eta %70eko
beherapenak!

Pijamak • Kamisoiak • Kamisetak
Batoiak • Pikardiak • Tangak • Bodiak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30

CARLOS OLAETXEA ▶ ARKEOLOGOA

«Lan handia egin zuen Jesus Elosegik, baina gehiena isilpean»

Aurkeztu berri dute 'Jesus Elosegi 1907-1979' liburua tolosarraren omenez;
biografiari dagokion atala Carlos Olaetxea berastegiarrak idatzi du

IÑIGO TERRADILLOS

Jesus Elosegi 1907-1979 liburua egin zuten pasa den larunbatean Tolosako udaletxean Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Tolosako Udalak antolatuta. Aranzadien 60. urteurrena zela aitzakiatzat hartuta, Jesus Elosegi tolosarra, Zientzia Elkarteko fundatzaileetako bat izan zena, omendu nahi izan dute liburu honekin. Hainbat atalez osatua dago, eta biografiari dagokiona, Carlos Olaetxea arkeologoak (Berastegi, 1962) egin du.

Nola dago osatua liburua?

Jose Migel Larrañaga Aranzadiko lehendakariaren agurra, nire testua bere biografiarekin eta argazki batzuekin eta gero beste testu bat Ramon Labaie-nek idatzia *Osaba Jesus* izenekoak. Euskaraz, gazteleaz eta frantsesez dago. Hortik aurrera, ehundik gora argakik osatzen dute liburua; hainbat ataletan daude banatuta berak ateratako argazki hauek: familia, kirolak, ohiturak, Tolosa...

Biografiaren atala egin duzu zuk.

Testu luzeena da. Bilera bat izan genuen Aranzadin familia-koekin. Geratzen direnak gertuenekoak bere ilobak dira: Elosegitarrak bere anaien seme-alabak eta emaztearen aldetik Labaiendarrak. Hala, bera ezagutu zutenekin elkarriketak egin ditut, eta bere egunerokoak ere irakurri ahal



I. TERRADILLOS

izan ditut. Horiekin bere bizitzaren laburpena egin dut.

Laburpen horren laburpena egin al dezakezu?

Ez dago asko idatzita bere bizitzari buruz. Gauza asko egin zituen, baina ez zitzaion gusta-

tzen elkarrizketak-eta berari egitea, oso umila zen, isilpean egin zuela lan esan daiteke. Tolosana jaio zen, eta gerraren aurretik bere gaztetako bizitza kontatu dut. Derrigorrezko hezkuntzaren ostean, injeniaritzarekin saiatu zen, baina ez zuen bukatu, eta hori utzi eta bere anaiaren emaztearen aitaren argazki estudioa hartu zuen, Kondeko Aldapan. 4 urtez argazkilari profesionala izan zen. Erretratoak egiten zituen eta prentsa argazkilaria

ere izan zen. 1935ean ezkondu egin zen izeba Pilarrekin. Gerra Zibila hastean alde egin beharra izan zuen bere aitarekin. EAJrekin nahiko lotuta zegoen, oso euskaltzalea zen. Ziburun eta Saran izan zen erbestean, eta kultura arloko jende ezagun asko ezagutu zuen. Ere-soinkaren sorreran egon zen. Erbesteko eguneroko bat ere topatu dugu. Handik itzuli zenean harrapatu egin zuten eta 2 urtez Mirandan eta Oartzunen egon zen. Pasaian jarri zen bizitzen gero. Mendirako zale-tasunari ekiten dio berriro, eta hasten da mamitzen menditik zientziarako ideia. Kobazuloetara sartu eta neurketak egin, intsektuak aztertu dolmenak... Hortik, nire osaba eta beste batzuen artean sortu zen Aranzadi. Bera izan zen idazkaria 1972ra arte, eta elkartearen barruan arlo asko sortu zituen berak. Utzi zuenean Tolosara bueltatu zen, baina ikerketekin jarraitu zuen. 1979an hil zen.

Zuk ere ezagutu zenuen Jesus Elosegi.

Bai, oso gaztea nintzela. Gero ere izan nuen tratu pixka bat berekin, historiaurrearekiko zale-tasuna nuen eta bere libururak irakurri nituen. Horregatik nire ikuspegia ere kontatzen dut biografian.

Argazki ugariz osatua dago liburua.

Aranzadik lan handia egin du. Bere 18.000 argazki digitalizatu dituzte, eta hortik aukeraketa egin libururako eta Aranburu Jauregian dagoen erakusketarako. Joaten zen leku guztietan ateratzen zituen argazkiak, eta bakoitzari bere azalpena ematen zion. Ikerketarako balio handia duten argazkiak dira.

KALE KANTOITIK ▶
JOXEMI SAIZAR

Atzera
eta
aurrera

Urteetan aurrera eta atzera historian berrera naramaten zen-bait ekitaldi eta gertakizun izan ditugu aste honetan gure eskualdean.

Hasteko, Jesus Elosegiren argazkiak liburu batean eta erakusketa batean ikusteko aukera aurkeztu dute. Joan zen mende hasierako belau-naldi baten ordezkari dugu tolosarra: bere anaia Periko (ilobak ere jarraitzaile finak dira), Urteaga anaia, Xebe Peña, Lopez-Mendizabal, Labaien... Beste kezka askoren artean, mendia eta euskara zuten zale-tasun nagusi-entakoak. Eta bere ibilaldiak xehetasun guztiekin egunerokoetan jasotzeko ohitura zuten denek. Hortxe dituzue photoshop-ik ez zen garaie-tako argazki paregabeak.

Berrogei urtetan ikusi ga-beko bandera izan dute jaie-tako erakarpn nagusia PPK Gipuzkoan *governatzen* duen herri bakarrean. Ea noiz izan diren Lizartzako jaia albeste estatuko komu-nikabide nagusi guztietan edo Marbellako *saraoetan*. Aspaldi abestu zuen Evaris-tok: *Salve Regina! Mater Misericordia!* Udako abestia Li-zartzan. Pintxatu al zuen DJ Bull-ek larunbatean?

Beotibarko bataila ekarri du gogora Floren Aozek jende-z betetako udal batzar are-toan eta datorren astean Gaztela eta Nafarroako erre-ruen arteko hura oroitzeko ekitaldia izango da. 686 urte pasatu behar izan dira. Baina dena ez da atzera begirakoa. Bilakatzan ari gara!

Bagara herri aurreratua eta kosmopolita! Baditugu pintadak arabieraz! Aste honetan bertan agertu dira Ark-aute parkearen parean. XXI. mendean gaude!

Atzera eta aurrera begira ari da lanean Alurr dantza taldea Ibarren, tradizioa eta berrikuntza uztartuz. Gaur aurkeztuko du dozena bat urtean egindakoa jasotzen duen liburua. Izan da, bada eta izango da.

Aspaldiko ohitura berres-kuratuko dute etzi Gure Txo-koa-Txinparta arraun desa-fioan. Nire apostua kilo eta urte gutxien dituztenen alde. Bezperan, Zerkausiko apar festan itotzen ez badira behintzat.



hilberria ▶

Igor Pelaez Etxarri



Garoa tabernako lagunek
ez zaitugu ahaztuko

AZPEITIA, 2007ko irailaren 14an

hilberria ▶

Igor Pelaez Etxarri



Hiru burutikan zer
ez zen pasatuko
Istripuan bihotza
geratu orduko
Zin egin diagu gurea
ez dek bukatuko
Sekula baztertutik
ez haiz geratuko
Lagunak ez baitituk
sekula galduko
Hire lagunak

AZPEITIAN, 2007ko irailaren 14an

KIROLAK ▶

Peñak Constanza lakua zeharkatuko du

Beste behin ere, Living Lakes elkarteari laguntzeko egingo du proba hau; igerian egingo ditu 65 kilometroak



Karlos Peña igerilaria egindako probetako batean. HITZA

tolatu dute elkarlanean. Azoka honetan hegazi eta naturaren inguruan informatzeko balioko dute, aldi berean jendea sentibiltzatzeko. Azoka honetan ere parten hartzen du Living Lakes elkartea. Non sartua dagoen Konstanza lakua.

Living Lakes 45 laku eta hezetasunen zaintzaz arduratzen da. Hala, duela 10 urtetatik hona Carlos Peñak modu berezi batean lan egiten du xede horretan. Bere ekintzen harretatik deitu nahi du, jendea ohartzeko lakuek pairatzen duten kutsadura eta hauek baxesteko dagoen beharraz ohartarazteko. Igerilariak Living Lakes kateko hainbat laku zeharkatu ditu jada: Titikakako 180 kilometroak eta Mexikoko Txapalako 80ak, besteak beste.

ESTI EZEIZA

Carlos Peña igerilari tolosarrak Austria, Alemania eta Suitzaren arteko mugan dagoen Constanza lakua zeharkatuko du igerian. Tolosarrak ohikoa duen bezala bizkarrez igeri

eginez zeharkatuko ditu 65 kilometroak.

Egun hauetan, Fokus Natur azoka ari da ospatzen Alemaniako Radolfzell herrian. Hau ingurugiroa zaintzearen aldeko zenbait elkarterek eta Constanza lakuaren Fundazioak an-

KIROLAK ▶

Euskal Herriko Ping-pong talde onenak, Usabalen

Bihar, egun osoan zehar jokatuko dute Euskal Herriko taldekako VI. Kopa

E. EZEIZA

Bihar, egun osoan zehar, Usabal kiroldegian ping-pongeko Euskal Herriko taldekako VI. Kopa jokatuko dute. Hemen Euskal Herriko 24 talde onenek hartuko dute parte.

Biharkoa 09:00etan hasiko da eta 20:00ak aldera amaitu. Kanporaketa sistema erabiliko da. Denera 12 mahai ipiniko dituzte, txapelketa aurrera eramateko. Lehiaketa hau Euskal Herriko Ping-Pongeko Federazioak antolatuko du, Villabonako Olaederra taldearen laguntzaz.

Eskualdeko ordezkari zari dagokionez, estreinakoz Usabal MTK hartuko du parte. Emiliano Anton, Iker Mugerza, Erik Diez eta Mikel Martinek osatzen dute taldea. Lehen aipatu bezala, hauek gain, izen handiko taldeak etorriko dira

bihar, Tolosan lehiazera. Horien artean: Irungo Leka enea, Donostiako Krafft Atletikokoak eta Gasteizko CD Gasteiz. Hala, antolatzaileen esanetan, maila altua izango da biharko norgehiagoketan.

Biharko antolatutako ikus-kizunarekin, Olaederra taldekoei, eskualdeko ping pong zaleak ere Usabalera hurbiltzea espero dute.

Biharko probatik at, joan den igandean, Txema Armenia eta Emiliano Anton eskualdeko jokalariek Euskadiko Beteranoen Openean hartu zuten parte. Hau Donostian jokatuko zen eta Espainiako Txapelketarako sailkatzeko baliagarri zen. Hala, bi tolosarrak, 40 urtez gaindikoetan, seigarren eta zazpigarren postuan geratu ziren, hurrenez hurren. Beraz, ez zuten lortu espainiakorako sailkatzea.

IX. GARAGARDO AZOKA ▶



Iriki dituzte jada azokako atea

E. Ezeiza ▶ Ateak zabaldu ditu dagoeneko Tolosako Garagardo festak. 22 garagardo ezberdin dastatzeko aukera izango da datorren egunetan, 18:00etatik 00:00etara bitartean. Halaber, jateko, 1.400 laguntzako tokia izango da. E. EZEIZA

POLITIKA ▶



EAJren jarrera salatu dute

E. Ezeiza ▶ 50 lagun inguru bildu ziren atzo iluntzean Triangulo plazan EAJren jarrera salatzen. Hemendik abiatu eta Tolosako kaleak zeharkatu zituzten, *PNV Espainiar errepresioaren morroi* lelopean. E. EZEIZA

hilberria ▶



Igor Pelaez Etxarri



Lokotx-eko lagunek

AZPEITIAN, 2007ko irailaren 14an

hilberria ▶

Igor Pelaez Etxarri

Herenegun hil zen, Azpeitian, 30 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Haren gurasoak: Gonzalo (+) eta Esther; neskalaguna: Nagore Amenabar; anaiak: Erik eta Miren Zubizarreta; amona: Maxima Markuleta (Manuel Etxarriaren alarguna; osaba-izebak: Alberto eta Estrella, Jose M^a eta Esther, M^a Karmen eta Marcial, Jone eta Jesus, Eduardo eta Marisa; lehengusak: Fredi eta Rebeka, Xabier, Amalur, Jon, Maggi, Imanol eta Miren, Aitor eta Miren, Maria, Alberto, eta Ana eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte Gaur ostirala, arratsaldeko 19:30ean, Azpeitiko Soresuko San Sebastian parrokia elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletan. Aldez aurretik, mila esker.

AZPEITIAN, 2007ko irailaren 14an

helbidea ▶ Karobi Etxea (Oñatz auzoa).
oharra ▶ Hilberria Azpeitiko Carmona ehorketa tanatorioan egongo da.

AMASA-VILLABONA ▶ BIDAIA

Santiago ur gainean

Aurretik beste inork egin gabeko bidaia burutu du arraunlari talde batek Orioko 'Txiki' traineruan, Santio bidea itsasotik egitea; abentura horretan ere parte hartu du Ekain Yarza amasarrak

IMANOL GARCIA

Esperientzia hitxia bilztu du uda honetan Ekain Yarzak (Amasa, 1978), Orioko Txiki traineruarekin Santiagora (Galizia) joan da erromes, portuak portura, Kantauri Itsasoan eta Atlantikoan. Orain arte inorrek ez duena egin lortu zuten trainerako horretako arraunlariak: Santo bidea ur gainetik. Yarzak, baina, bidea ez zuen egin erromes moduan, berak gehiago kirol erronka bat bezala hartu baitzuen. Amasarra Tolosan dabilelan aritu zen eta orain hiru denboraldi Pasai San Pedrona joan zen, lagunak tentatuta, arrauna probatzera. Aurten go denboraldiaren aurretik dudia zuten jarraitu edo ez beste urtebetez. «Pena emanen zidan arrauna zutela. Bidaia honen berri izan eta pentatu nuen aprobetxatu egin behar zuela. Behin ere egin gabeko gauza bat zen, erdi abentura. Eta nik neuk ez nuen antzerik aurretik egin. Galdetu nuen ea parte hartzea posible zen eta horrek sartu nintzen taldean, dio Yarzak.



Bidaian parte hartu zuten guztiak Santiago Obradoiro plazan, traineruarekin. HITZA

ARRAUNA

Ez da edonolako kirola: «San Pedron aritu nintzen lehenengo egunean bost minutu bakarrik eutsi nion»

HARRERA

Portu guztietan harrera oso ona egiten zieten; herri batzuetan udaletxera gonbidatu ere egin zieten

ITSASOIA

«Une batetik bestera asko aldatu daiteke; lur mutur baten ondoren batzuetan egoera guztiz ezberdina zen»

tik gertuen dagoena. Beraz, Oriotik Pientziara (Bizkaia) joan ziren, eta hurrengo egunetan ondorengo herrietan gelditu ziren: Santander (Kantabria, Espainia), San Vicente (Kantabria), Ribadesella (Asturias, Espainia), Luarca (Asturias), Luarca (Asturias), Burela (Lugo, Galizia), Cedeira (Coruña, Galizia), Coruña (Coruña), Laxe (Coruña), Fisterra (Coruña) eta Noia (Coruña).

75 kilometro egunero

Egunero 40-42 itsas mila egiten zituzten, hau da, 75 kilometro inguru. Portuak itzazpeko ja-



Noiako portura iritsi ondoren Yarza (eskubian) eta traineruko beste beste arraunlari bat. HITZA

kin batekin zuzen aukeratu: «Porturako sarrera ona izatea eta portua herrian bertan egotea. Bestalde, herriak arraunlarietarako loturaren bat izatea ere hobesten zen».

Aurretik hitzartuta zizuten gelditu behar zireneko herriak bertako arraun taldearekin. Normalean kiroldegietan egiten zuten io. «Gozoko bestak inguru ematen ginen. Gosaria prestatu eta 06.30a aldera arraumen hasi. Eguzkia alera gabe sartzen ginen urtean. Hiler, humpetan desente ikusten da ur gainean. Ilargia badago, askoz gehiago. Gero, eguzkiaren lehen izpiak ateratzen zirenean, oso une ederra izaten zen».

Zazpi ordu inguru egiten zizuten egunero eta 14.00a aldera iristen ziren portura. Ahal ziren eguzki-ordu gehienak kentzen zen helburua. Izan ere,

itsasoan ez dago itzalik. Portu guztietan harrera oso ona egiten zieten dio amasarrak. «Ia leku guztietan alifaltza gonbidatzen gintuzten eta bainat udaletxetan ere harrera ofiziala egin ziguten».

Itsasoak dakarren abentura
Bidaia honetako kezka eta erronka nagusia itsasoa zen. «Mementu batetik bestera asko aldatu daiteke itsasoa. Lur mutur bat pasatzerakoan, batzuetan egoera guztiz ezberdina izaten zen».

Hala ere, zorrie on izan duta, «kantauri itsasoan ondo ibili gara. Berez Galiziatik etortzen da haizea, baina guk kontra izan beharrezan alde izan dugu. Gero Atlantikoan itsaso zakarra izan dugu; haizea hotza indartsua, olatu handiak... Batzuetan ondoan gertatzen has-

sonitzia ere ez genuen ikusten. Baina egoera horretan ere haizea alde gertuen. Kontra izanez gero ezinezkoa izango zen aurrera egitea».

Laguntza handia izan zuten itsasontziko kapitainak «40 urte baitaramazki itsasoan nabigatzen». «Kosta ondo ezagutzen du eta itsasontziak GPSa zuen. Berak esaten zigan nondik joan eta kostatik zenbat aldentzen».

Traineruarekin ez zuten arazorik izan. Arraunlariak buruhauste gehiago izan zituzten itsasontzian. «Bi ordu aritzen ginen arraunean eta gero 45 minutuko atsedena egiten genuen itsasontzian. Traineruan jendea ez zen marrazten, baina itsasontzian batzuk bai». Itsasoko oihutara zakarra izan dugu; haizea hotza indartsua, olatu handiak... Batzuetan ondoan gertatzen has-

Pasai San Pedron lehian

Bi denboralditan aritu da Ekain Yarza Pasai San Pedron traineruan. «Gogorra egiten da. Eguneroko konpromisoa eskatzen du. Larunbatetan eta igandetan ere entrenamenduak egin behar dira. Hori bakarrik egin dezakezue. Horregatik, denboraldi honetan utzi egin zion lehiaketako arraunari. Hain justu, Pasai San Pedro ACT ligan sartzea lortu duen denboraldian. Datorrenari begira ez du oraindik erabaki berriro traineruan sartuko den».

Villabonako boet lagunekin batera aritu da bertan Joseba eta Eneko Larrazte, Garkotz Lopetegui, Andoni Leunda eta Ander Ansa. «Pena eman dit berarekin ez egoteak. Sekolah denboraldia egiten arituz, 7. postuan daude ACT eta ligan mantenduko da trainerua». Aurten Denostakoko Kontrako banderan lehiatzeko aukera izango zutela pentsatzen zigen, haizea erakartzen zuelako. Abestea ere galarazten zizun, eguraldi txarra ekartzen zuelako. Bestalde, beti itsaso zabalera adal begirituz nabigatu behar zela zioen, handik etortzen baita kaltea eragin dezakeena».

Arrainak ikusteko aukera ere izan zuten. «Balerik ez gertu izan, baina izurdeak ondoan izan gertuak igeri egiten. Hegalzak ere ikusten gertuak. Traineruan bazetuen arrantzan urte desenteko eskarmentuarekin eta berarekin erakusten zigituen».

Azkeneko portua Noia izan zuten, baina helburua Santiago zenez, bertaraino heldu ziren. Hiru arraunlari korrikari joan ziren Noaitik eta besteak azkeneko zortzi kilometroak oniz egin zituzten, arrauna gainean zerametela. Obradoiro plazara bertan argazkia ateratzeko. «Egunkari eta telebistetan azaldu ginen. Batez ere Galizian sekulako jarrapena egin zigituen komunikabideko».

Esperientzia ona izan dela dio Yarzak eta gustura egongo lukeela beste horelako bidaia bat. «Poltra izango zen Galiziatik hegaldara jarraitu eta Portugaleko kostatik zehar egitea». Ea berarekin sortzen zion



Ekain Yarza. I. GARCIA



ELI NOSELLAS ▶ ALURR DANTZA TALDEKO LEHENDAKARIA

«'Alurr' liburuan familia handi hori bildu nahi izan dugu»

Gaur aurkeztuko dute 19:30ean 'Alurr' liburua, dantza taldeko kide eta gonbidatu ugariren babesarekin

ASIER IMAZ

Alurr dantza taldeak izen bereko liburua aurkeztuko du gaur, 19:30ean, Ibarako Kultur Etxean. Eli Nosellas (Belauntza, 1959) taldeko lehendakaria da, Beotibarkoa, berak dioen bezala. «Merezi izan duen lan gogorra» dela onartzen du, izan ere, liburuaz hitz egiten hasten denean, alaba edo seme jaioberri batez ari dela dirudi.

Nondik dator 'Alurr' liburua-ren idela?

Duela bi urte, Alururen 10. urteurrena ospatu genuen. Zerbait egin nahi genuen data horretarako, baina ezer bildurik ez zegoela konturatu ginen, nahiz eta materiala bazegoela jakin. Fototeka bat egin nahi genuen, argazkiekin erakusketak egiteko. Grabazioak elkartu eta DVD bat ere atera nahi genuen. Orduan hasi ginen material bila, etxex-etxe, Kultur Etxean, lagunen artean, familiaren artean, ezagunen artean... Lan honen ondoren, material dexente bildu zen eta 10. urteurrenean, aste kulturaren barnean erakusketa burutu genuen. Horretaz gain, lortutako grabazioekin, ordubeteko DVDa atera genuen, Alururen ordurarteko historia kontatuz.

Behin argazki eta grabazioak bildu ondoren, hurrengo urratsa: liburua.

Alururen historia idatzita utzi behar genuela pentsatu genuen. Gu ibili garen bezala ez daitezen ibili etorkizunean, jada oinarri bat egon badagoelako. Ideia horrekin abiatu ginen. Haseran eztabaidak sortu



A. IMAZ

ziren; liburua nola egin, zein aurrekontu, zein laguntzaile eta horrelako gauzekin. Oztupo ugari izan ditugu baina azkenean lortu dugu.

Zer eskaintzen du 'Alurr' liburua?

Ibarran dantzak izan duen bilakaera, Azkunde taldea zegoen garaitik eta Alururen historia eta bilakaerara arte. Herriaren historia biltzen joan behar da, gerorako bilduta utzi beharra dagoela uste baitugu. Argazki bidez, Alururen emanaldiak sarzaten ere saiatu gara, argazki zaharrekin batera. Horretaz gain, Ibarrari eskainitako gure

lehen dantza, *bazinen bazara*, dantzatu genuen lehen aldia, Alurri dantzari batek egin dion poesia eta liburuaren amaieran Eider Ijurkoren argazkia. Proiektu honetan gurekin hasi zen Eider Ijurko eta bere argazkiak gain, atxilotu ondoren lagun batek idatzitako olerkia ere jarri dugu. Familia handi hori bildu nahi izan dugu. Gaurko eta atzoko dantzari, irakasle eta musikari guztiak biltzen saiatu gara, baina ziurrenik norbait faltan egongo da, ahalik eta ondoren egiten saiatu garen arren.

Liburua eta gero, zein da hurrengo urratsa?

Sanbartolomeetan herriari aurkeztu genion. Gaur berriz aurkezpen ofiziala daukagu, dirua jarri dutenantzako eta batez ere, musikari eta gure laguntzaileentzako. Ilusioa egingo digu denak elkartuko garelako. Aurkeztu eta egingo dugun luntxaren ondoren, saltzen jarriko dugu. Momentuz Ibarrrako bi dendetan. Lurdesek eta San Bartolome Komertzialak eskatu digute oraingoz, norbaitek bere dendan saldu nahi izanez gero, deitza besterik ez du.

IBARRA ▶ PILOTA

Euskal pilota ikasturtea aurkeztu dute eragileek



Pilota ikastaroa bultzatzen duten arduradunak eta eragileak. A. IMAZ

A. IMAZ

Euskal pilotaren inguruko ikasturtea hastear dago Ibarrran. Izen emateko aukera zabalik aurkitzen da, horretarako, haurrak Belabieta Kirolegira edo Uzturpe Ikastolara joan beharko dute. Arduradunek ikasturtea aurkezteko eskaini zuten prentsaurrekoan, «herriko haur eta gaztetxo guztientzat antolatzen diren ikastaroak» direla azpimarratu zuten. Sendi Ekintzaz gain,

Uzturpe Ikastolak eta Ibarrrako Udalak ere parte hartzen dute Pilota Aniztasuna Kiroel Elkarte Errekreatiboak gidatzen duen proiektu honetan. Lehen mailako haurretatik federatu bitarteko gaztetxoekin lan egingo dute bertan, esku pilotaz gain, modalitate ezberdinak ezagutzeko aukera emanaz. Aurtengo berezitasuna, Gipuzkoako Federazioarekin elkarlanean antolatutako nesken paleta ikastaroak izango dira.

IBARRA ▶ MENDI IRTEERA

«Euskal Herria ezagutzuz, lurraldetasuna sustatzuz»



Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Rajuko kideak Haitzetan. A. IMAZ

A. IMAZ

Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak irteera antolatu dute etzira. «Ez da egun pasa gogorra izango, haurrekin joateko modukoa, horregatik ahalik eta jende gehien azaltzea» nahi dutela

esan dute antolatzaileek. Igandean, 08:00etan Ibarrrako plazan geratu dira, autoz Lapurdura joateko. Bertan, Getaria eta Hendaia elkartuko dituzte oinez, 4 edo 5 orduko bidea eginaz kostatzen bertatik. Bainujantzia ematea ere gomendatu dute.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ GIZARTEA

Plazaola Naturbidean, igandean, kirola eta jaia uztartuko dituzte

V. Mendi-Bizikleta Martxa Plazaolatik Barna proban eta II. Maratoi Erdian jada 300 pertsonen izena eman dute



Inma Etxarri, Yolanda De Karlos, Jose Maria Aierdi eta Ruben Goñi atzo egindako aurkezpenean. N. GARZIA

ERREDAKZIOA

Atzo Plazaolaren egoitzan (Lekunberri) Plazaola Partzuergoak datozen bi asteburutarako antolatutako ekintzen aurkezpen ekitaldia egin zuten: V. Mendi-Bizikleta Martxa Plazaolatik Barna eta II. Maratoi Erdia (asteburu honetan), eta Sagardoaren Eguna (datarren asteburuan, hilaren 23an). Aurkezpen ekitaldian Inma Etxarri kultura teknikaria, Yolanda de Karlos Plazaola Partzuergoko kudeatzailea, Jose Maria Aierdi lehendakaria eta Ruben Goñi Mankomunitateko kirol arduraduna bildu ziren. Igandean ospatuko diren bi ekitaldiak Europako Natur Bidearen Egunaren eta Mugikortasunaren Astearen barruan kokatu dituzte.

Mendi txirrindulaz egin behar duten ibilbiderako eta maratoiarako izena emateko epea zabalik egondu denez, Jose Maria Aierdi lehendakariak azaldu zuenez, «mendi txirrindulan parte hartzeko jada 200 pertsonen izena eman dute, eta maratoiarako, aldiz, 100k».

V. Mendi-bizikleta Martxa

Mendi txirrindulaz egin behar duten martxa Plazaola Partzuergo Turistikoa Andoain, Leitza, Larraun eta Lekunberriko udalekin eta kirol zerbitzuarekin elkarlanean antolatu dute. Igandean honetarako mendi txirrindularekin parte hartu nahi duen edonorentzat 3 ibilbide proposatu dituzte: lehenengoa Andoaindik Lekunberriera doana (40 kilometro). Irteera gunea Andoaingo plazatik izanen da, 10:00etan. Bigarrena, famili martxa delakoa, Leitza eta Lekunberri artekoa izanen da (15 kilometro), eta irteera gunea 11:30ean izanen da, Leitzako Plazaola Geltokitik. Azkenik, hirugarrena, haur martxa delakoa, Lekunberri Mugira joan-etorria egitea izanen da (4 kilometro), eta irteera Lekunberriko Plazaola Geltokia izanen da, 12:30ean. Aldez aurretik izena eman ez dutenek egunean bertan egin dezakete, irteera bakoitza baino orduete lehenago.

Aurkezpenean Aierdik kasakoa eta argia derrigorrezkoak izanen direla adierazi zuen. «Bereziki Uitziko tunelarengatik, lurra oraindik ez dago erabat konpontuta, lehengo urtean baino hobeto dagoen arren. Gainera, aurten euri gutxiago egin du».

Parte-hartzaileek ibilbidean zehar autoekin gurutzatzen diren hainbat punturekin eginen dute topo: Urtoko gunea, Telleriako tunela eta Uitzikoa. Telleriako tunelari dagokionez, berreskuratu gabe dagoenez errepidera jaitzi eta 200 metro egin behar dira bide ertzetik. Uitziko tunela pasa bezain laster ere 200 metro errepide bazterretik egin behar dira.

Bestalde, haur eta familia martxa girotuko dituen pailazo talde bat egonen da, eta amaieran, parte-hartzaile guztiei oroirari bat banatzeaz gain, hamaiketako eskainiko zaie. Parte-hartzaileek Lekunberriko Plazaola Kiroldegian dutazeko eta txirrindulak garbitzeko aukera izanen dute.

Autoa dutenek horretarako prestatutako guneetan aparkatu ahaliko dute: Lekunberriko kiroldegian. Leitzako Plazaola geltokian, eta Aurreraren futbol zelaiaren aparkalekuan.

II. Maratoi Erdia

Maratoia Leitza-Lekunberri artean egingen denez (21 kilometro) irteera Erreka Sagardotegiaren parean izanen da (Leitza), 09:30ean eta helmuga Lekunberriko geltokian. Dortsalak Leitzako geltokian banatuko dituzte, 08:00etatik 09:00etara. Probaren amaieran diru-sariak banatuko dituzte, 180 euro, 120 euro eta 80 euro lehenengo hiru gizonetako eta emakumezkoentzako. Halere, parte-hartzaile guztiei oroigarri bana banatuko zaie.

LEITZA ▶

Eskuz Binakako Txapelketan zenbait aldaketa

Leitzako Eskuz Binakako III. Txapelketaren barruan asteburu honetan finalerdi guztiak jokatzekoak ziren arren, pilotari asko hainbat txapelketatan buru-belarri dabil-tzanez, kadete, gazte eta seniorren norgehiagokak hurrengo asteburuan jokatzeko dituztela erabaki du pilota eskolak. Asteburu honetan, beraz, partidak larunbatean soilik izango dira eta benjaminak, hasiberriak eta haurkategoria ariko dira, 09:30etik aurrera.

TOLOSA ▶

Igeriketa ikastaroa laster martxan

Tolosaldea IKT igeriketa eskolaren ikastaroa urrian hasiko da. Ikastaro honetan 6 urtetik gorako umeek soilik parte har dezakete, eta igeriketa klasikoko 4 estiloak erakustea du helburu. Interesatuta daudenek 667 63 17 42 telefono zenbakira deitu behar dute. Bestalde, 12 urtetik gorakoentzat urpeko ikastaroa ere martxan dago. Ikastaro honen helburua hegatsen igeri egiten ikatea da. Informazio gehiago, Usabalgo igerilekuan.

ANOETA ▶

EHNA tramitatzeko aukera

Anoetako Bai Euskal Herriari herri ekimenak hilaren 15erako EHNA tramitatzeko aukera berri bat eskainiko dio edozein herritarri. Beharrezkoak dira errolda agiria, 15 euro, 3 argazki eta 14 urte azpikoei famili liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharok dute. 11:00etatik 13:00etara egingen da, udallexean.

iragarki laburrak ▶

ESKUALDAKETA Loradenda. Lasarten loradenda eskualdaketa jubilazioarengatik. Laneko materialarekin. Errenta zaharra. Toki ezinhobean. 18.000 euro. 943 36 75 75/626 50 56 89.

ALOKAIRUA Pisu. Neska gazte bat ikasle pisu bila dabil. Tolosan. Deitu zenbaki honetara: 652 77 45 05.

GIZARTEA ▶

AEK alfabetatze ikastaroa antolatu du

Andoaingo AEKk alfabetatze ikastaroa antolatu du andoaindar eta Tolosaldeko herritarrentzat, bai euskaldun zaharrentzat, bai euren euskara maila hobetu nahi dutentzat. Ikastaroa astean hiru egunetan emanen dute, gutxi gorabehera 09:00etatik 11:00etara, Andoaingo AEK-aren egoitzan. Izena emateko 943 59 17 04 zenbakira deitu behar da edo Andoaingo AEKk Extremadura kaleko 5 zenbakian duen egoitzara gerturatu.



Urrian hasiko da ikastaroa. HITZA

TOLOSA ▶

Zeinu hizkuntza ikasteko ikastaroa

Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkarteak antolatuta (Gainditzen), zeinu hizkuntza ikastaroa izango da urriaren 1etik maiatzaren 29ra bitarte. 2 orduetegi jarri dituzte: astelehen eta asteazkenetan, 16:45etatik 18:45era, eta astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroak Tolosako Inmakulada Ikastetxean emanen dituzte. Lortutako ziurtagiriak Madrilgo CNSE-ren baliozkotasuna izanen du. Izena emateko 943 67 03 81/666 63 71 54 zenbakietara deitu ordutegi honetan: 09:00etatik 13:30era eta 15:etatik 19:30era.

ERROMERIA LEGAZPIN!

Irailaren 16an, igandea, Lakiolan, 12:00etatik aurrera. Koadriren arteko apustu latza, bertsolariak, jokoa eta erromeria bikaina Elustondo anai-arrebekin! Autobusa, bazkaria eta taberna, Euskarazko Zingitango webgune berriaren alde. **Anima zaitzez!** Euria egin ez gero, Urbeltz pilotalekuan egingo da.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Abaltzisketa. Idoia Sanchez ipuin kontalari ariko da ipuin ezberdinak kontatzen, 17:00etan hasita eta herriko liburutegian.

Alkiza. Jaien baitan egitaraua, 17:00etan gazteen pilota partiduak; ondoren toka txapelketa; 23etan bertsolari jaialdia (Lizaso, Peñagarikano, Egaña, Lujanbio, Irazu, Arzallus) eta ondoren erromeria Agurtzane eta Ion Elustondorekin.

Amezketeta. Idoia Sanchez ipuin kontalaria eskolan ariko da ipuin ezberdinak kontatzen. 18:30etik aurrera.

Amezketeta. Balioonitzeko gelan odol ematea izango da arratsaldean, ostiralean bertan. Herritarrak ez direnak ere joan daitezke.

Tolosa. 9. Garagardo Festa Zerkausion 18:00etatik 24:00etara.

Tolosa. Joaquin Araujo naturazale ospetsuaren hitzaldia La Jara Extremadurako zentroan 19:00etan. Ondoren afaria izango da Flor de jara abesbatzak alaituta.

ZINEMA

Tolosa. *Next* filma ikus ahal izango da Leidor aretoan 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

Goizueta. Apeztebea, L. M. Kale Nagusia, 64. 112.

Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Itsasoan nahiz mendian

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Astebete geratzen da lehiaketan parte hartu ahal izateko; Ane Eceizabarrenak eta Abel Larretak bidali dute euren argazkia

SAVUDRIJA (KROAZIA) ▶

Ane Eceizabarrena (Tolosa).

Kroazia ezagutu du uda honetan Ane Eceizabarrena tolosarrak eta argazki eder hau bidali du gure lehiaketan part hartzeko. Hau azaldu digu: «Kroaziako kostaldeak Esloveniarekin muga egiten duen Savudrija herrian ateratako argazkia da. Ilunabarrean itsasontziak lehorreraturik uzten dituzte hurrengo egunerarte».



GUATEMALA ▶

Abel Larreta (Tolosa).

Hegoamerikan izan da Abel tolosarra. «Guatemalako Ozeano Bareko manglaretatik ikusi daitezke igo genituen sumendiak, horietako batzuk aktiboan», esan digu argazkia ekartzerakoan.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Maddi Lopetegui Serrano (Ordizia) Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu asko-asko ebeko guztien partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

hitza Harpidedunen txokoa

Larunbata, **irailak 15** Tolosako Beotibar frontoian ospatuko den **Triku-Jai** jaialdirako **bi harpidedunentzako bina sarrera** zozketatu ditugu eta honako hauek dira irabazleak:

- ▶ Pedro Arruabarrena Aranbide (Tolosa)
- ▶ Joxe Mari Iraola Olano (Tolosa)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

